



# IRABAZI ITURRIAK


Negozio proposamena ondo diseinatzeak eta modu egokian abian jartzeak, diru-sarrerak eta etekinak lortzea ahalbidetuko digu.

Aipatutako diru-sarrerak sortzeko edo lortzeko modu desberdinak dauzka enpresa batek: aktiboen salmenta, erabileragatiko saria, harpidetzagatiko saria, mailegua, rentinga eta alokairua, lizentziak, komisio bidezko sariak eta publizitatea.

Gure enpresaren irabaziak publizitatearen bitartez lortuko dugu gehienbat, behar dugun dirua enpresa aurrera joan dezan. Erosleak edo hobeto esanda, bezeroak, ordainketa bakarrean erosi beharko dute eskaintzen dugun produktua, izan ere, prezio baxua izango du eta ez da beharrezkoa izango ordainketa errepikakorraren bitartez erostea.

Irabazi iturriak

SALMENTA  
20,0%



Aurreikusten dugu, hasieran, gure enpresaren irabaziak ez direla guk espero ditugunak bezain altuak izango, enpresa berria baita eta erosi behar denaren kopurua handiagoa izango delako salduko denarena baino.

Horregatik, galera nabarmenak izango ditugu hasieran, baina espero dugu denborak aurrera egin ahala, galera horiek gainditzea eta enpresa aurrera eramatea. Grafikoan garbi ikus daitekeenez, gutxi gora-behera enpresaren kapitala %80a publizitatean inbertituko dugula, eta salmentaren portzentaia askoz baxuagoa izango dela, %20a inguru.

Bestetik, bi prezio mota daude, finkoak eta dinamikoak. Gure enpresa prezio finkoaren arabera funtzionatuko du, prezioak aldagai estatikoaren arabera aurredefinituak egongo dira. Prezioa ezaugarrien araberakoa izango da, alegia, produktuaren kopuruaren edo kalitatearen araberakoa, zehazki kopuruaren edo kalitatearen araberakoa izango dena.

Adibidez, gure enpresaren kasuan, banbuzko hortzetako eskuil bat sortuko dugu, barruan pasta duena eta honek plastikozko eskuila batek baino gehiago balio du.

Laburbilduz, produktuaren prezioa eskuragarri izango da bezero guztientzat, 5,23€ balioko du. Hasiera batean, enpresa nahiz produktu ezagunak ez garenez, arrazoi honengatik produktua nahiko merke salduko genuke. Geroago, eskaeraren arabera, prezioa igo edo jaitsi egingo genuke.